

DESKRIBAPENA

Gure enpresaren izena United Time da. Gure helburua etxeko animalietaz arduratzeko edo zaintzeko kalitatezko zerbitzu bat eskaintzea da. Gure buruari ideia bat planteatzerakoan, ideia hau erabaki genuen, zeren eta, konturatu ginen jende askok ez duela bere animaliak egoki zaintzeko beharrezko denbora, beraz, guk eskainitako zerbitzuarekin bera maskota egoki zaindua egongo da gure bezeroak ezin denborarik ez duenean. Bestalde, beste arazo bat konpontzeko ere aukeratu genuen ideia hau. Arazo hori maskoten abandonatzea da. Jabe askok maskotetaz arduratzeko denborarik ez dutenez abandonatu egiten dituzte eta guk arazo larri hori ekiditzeko lagunduko genuke.



Gure lana aurrera eramateko toki egoki bat alokatuko dugu lursail askokoa non animaliak zaindu ahalko ditugu. Ondoren irratian eta aldizkarietan iragarkiak jarriko genituzke bezero kantitatea handitzeko eta enpresa handi bat bilakatzeko. Beste aldetik, hasiera batean, enpresan guk hirurok lan egingo dugu beharrezko lan guztiak kudeatuz, baina etorkizunean bezero gehiago etortzen badira, langileak kontratatuko genituzke. Ondorioz, gure ustez, beharrezkoa da enpresa hau maskotak dituzten pertsonentzat zerbitzu beharrezko bat proportzionatzen diegulako.